

NEXT CARE

III. TOPAKETA

BIZITZA-LUZETASUNEO BERRIKUNTZAREN EURO POLOA: EMAITZAK ETA IKASKUNTZAK

2025EKO AZAROAREN 19a / FICOPA. IRUN

NEXT CARE

Bizitza-luzetasuneko Berrikuntzaren Euro-Polo Proiektua (NEXT CARE), Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzak (Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila – Eusko Jaurlaritza) kudeatzen du eta Next Generation funtsen bidez finantzatuta dago.

Proiektuaren onuradun nagusiak hauskortasun eta mendetasun egoeran dauden adinekoak eta arlo mediko-sozialeko profesionalak dira; baita gizarte eta osasun politiken kudeatzaileak, eta etxeko zaintzarekin, egoitzekin eta zainketa komunitarioekin lotutako erakundeen (sozialak eta pribatuak) kudeatzaileak.

Helburuak



NEXT-CARE III. Topaketaren (2025) helburua da NEXT-CARE, “Bizitza Luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Poloa” proiektuak bere ibilbidean zehar lortutako emaitzak eta ikaskuntzak zabaltzea. Proiektua Next Generation funtsekin finantzatuta dago, eta Euskadiko, Nafarroako, Akitania Berriko eta Okzitaniako erakunde eta eragileen lankidetzat du.

Edizio honetan, ekitaldiak aukera emango du **ebidentziak partekatzeko**, mugaz gaindiko esperientziatik eratorritako **ikaskuntzak kontrastatzeko** eta **etorkizunerako gomendioak eztabaidatzeko**; hots, mugaz gaindiko eremuetan bizitza-luzerako berrikuntza-politikak bultzatzen dituztenak.

Jardunaldian zehar, proiektuaren **emaitza nagusiak laburbiltzen dituen ondorio eta gomendioen liburua aurkeztuko da**. Dokumentu horrek gakoak eskaintzen ditu bizitza-luzera dimentsio handiko eta belaunaldi arteko fenomeno gisa ulertzeko. Hain zuzen ere, herrien zahartzeari buruzko begirada berria eskatzen du, besteak beste, zerbitzuen iraunkortasuna, bizi-kalitatea, belaunaldi arteko itunak eta laguntza-sareak indartzea bezalako alderdiak kontuan hartuta.

Topaketak, halaber, aukera emango du **“Bizitza-luzeraren politiken etorkizuna Euro Eskualdean” gaiari buruz eztabaidatzeko**; horrela, hainbat lurraldetako arduradun instituzionalak, ikertzaileak eta profesionalak bilduko dira bizitza-luzeraren erronkei eta aukerei buruzko gogoeta egiteko, belaunaldien arteko ikuspegitik, **ikuspegi komunitariorik eta mugaz gaindikotik**.

Egitaraua

09.30 – 09.45	Partaideen erregistroa eta sarrera
09.45 – 10.00	Irekiera. Topaketaren aurkezpena
	Nerea Melgosa. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua. Eusko Jaurlaritza.
10.00 – 10.30	Bizitza-luzetasuna: mugaz gaindiko ausia
	Frédéric Bousquet. Autonomiarako Saileko Etxeko Zuzendaria. Goi Pirinioetako Kontseilu Departamentalak.
10.45 – 11.00	NEXT-CARE. Bizitza-luzetasuneko mugaz gaindiko estrategia
	Marian Olabarrieta. Bizitza Beterako Laguntzen zuzendaria eta NEXT-CARE proiektuaren zuzendaria. Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila. Eusko Jaurlaritza.
11.30 – 10.45	NEXT-CARE. Emaizten balantzea, ikaskuntzak eta etorkizuneko agendak
	Javier Castro-Spila. GIZALAB-eko ikertzaile nagusia. Gizarte Politikaren Berrikuntza Zentroa. NEXT-CARE proiektuaren koordinatzailea.
11.00 – 11.30	KAFE ETENALDIA
11.30 -12.30	Mahai-ingurua. Bizitza-luzetasuneko politiken etorkizuna Euro-Eskualdean
	Frédéric Bousquet. Autonomiarako Saileko Etxeko Zuzendaria. Goi Pirinioetako Kontseilu Departamentalak. Begoña Elizalde San Miguel. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko irakasle titularra. Anthony Pagis. ReSanté-Vous-eko operazio zuzendaria Pirinio Atlantikoetan. Eusko Jaurlaritzako ordezkaria. Baieztatze zain. Moderatzailea: Javier Castro-Spila. NEXT-CARE proiektuaren koordinatzailea.
12.30 – 13.00	Iritzi-trukea partaideekin
13.00	Lunch

Irekiera instituzionala

Nerea Melgosa.

Ongizate, Gazteria eta Erronka
Demografikoaren sailburua.
Eusko Jaurlaritza.

Nerea Melgosa arduratuko da ongietorri instituzionala egiteaz anfitrioi gida, eta Eusko Jaurlaritzak bizitza-luzeraren erronkaren aurrean agenda komun bat eraikitzeke duen konpromisoari balioa emango dio. Gogora ekarriko du aurrekaririk gabeko aldaketa demografiko honek belaunaldi eta lurralde guztiak hartzen dituela, eta administrazio-mugetatik haratago doazen erantzun kolektiboak eskatzen dituela.

Esparru horretan, NEXT-CARE proiektua mugaz gaindiko lankidetzaren esperientzia estrategikoa da, eta horren ikaskuntzek eta gomendioek giltzarri baliotsuak eskaintzen dituzte bizitza-luzera politika publikoen erdigunean kokatzeko, urte horietan bizitza-urte gehiago ez ezik, bizitza gehiago ere bermatuz, eta etorkizuna gizarte kohesionatuago, bidezkoago eta solidarioagoetara bideratuta.



Hasiera hitzaldia

Bizitza-luzetasuna: mugaz gaindiko auzia

Frédéric Bousquet.

Autonomiarako Saileko

Etxeko Zuzendaria.

Goi Pirinioetako Kontseilu

Departamentala.

Hitzaldian azpimarratuko da bizitza-luzeraren erronkek muga administratiboak gainditzeaz gain, **eskualdeen arteko erantzun bateratuak eskatzen dituztela**, zahartzearen erronkei aurre egiteko lankidetzak instituzionala eta soziala indartuz.

IBILBIDE PROFESIONALA

Frédéric Bousquet Adinekoen eta Desgaitasuna duten Pertsonen Autonomiarako Departamentuko zuzendaria da, Pirinio Garaietako Departamentuan (Okzitania), eta autonomia partekatuko eta eragozpenik gabeko politika bultzatu du, dimentsio soziala, sanitarioa, mediko-soziala eta lurralde-mailakoa artikulatuz.

Esperientzia handia du bizitza-luzerari laguntzeko politikak koordinatzen, eta honako hauek bezalako ekimenen buru izan da: Solid'Action65 garapen sozialeko plana, Koordinazioa Bultzatzeko Dispositiboak (DAC) eta Autonomiaren Departamentuko Zerbit-

zu Publikoaren (SPDA) aurrefigurazioa. Haren ikuspegiak eskualde-garapeneko motor gisa egindako inbertsio soziala eta erabilitzaileen, profesionalen eta eragile instituzionalen parte-hartze aktiboa konbinatzen ditu.

Europako proiektuetan parte hartzen du; esate baterako, NEXT-CARE proiektuan, eta mugaz gaindiko lankidetzak duen garrantzia azpimarratzen du, konponbide berritzaileak eta iraunkorrak sortzeko, zehartze demografikoaren eta landa-inguruneetako arretaren erronken aurrean.



Ponentzia

NEXT-CARE. Bizitza-luzetasuneko mugaz gaindiko estrategia

Marian Olabarrieta.

Bizitza Beterako Laguntzen
zuzendaria eta NEXT-CARE
proiektuaren zuzendaria.
Ongizate, Gazteria eta Erronka
Demografikoaren Saila.
Eusko Jaurlaritzia.

NEXT-CARE proiektuaren arduradun nagusiak **bizitza-luzeraren mugaz gaindiko estrategia aurkeztuko du**, eta lankidetzaren instituzionalaren eta sozialaren garrantzia azpimarratuko du, eredu berriak eta iraukerak baterako bidean aurrera egite aldera.

IBILBIDE PROFESIONALA

2024ko azaroaz geroztik, Marian Olabarrietak Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritzan egiten du lan, Eusko Jaurlaritzan. Aurretik, erantzukizuneko hainbat kargu izan ditu gizarte-zerbitzuen arloan: Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailean (2024ko ekaina-azaroa); Berritasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailean (2020-2024); eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean (2019-2020).

Ibilbide luzea du zaintzen eta bizitza-luzeraren arloan; Amurrioko udaleko zinegotzia eta Arabako foru diputatua izan zen, eta Gizarte Ekintza, Kultura, Kirol, Berritasun eta Lankidetzaren Batzordeetan parte hartu zuen. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan (Pedagogia) lizentziatu zen Deustuko Unibertsitatean eta Masterra egin zuen Hezkuntza Orientazio eta Eskuhartzean, ALBOR-COHS Taldean.



Ponentzia

NEXT-CARE. Emaitzen balantzeara, ikaskuntzak eta etorkizuneko agendak

Javier Castro-Spila.

GIZALAB-eko ikertzaile nagusia.
Gizarte Politiken Berrikuntza Zentroa.
NEXT-CARE proiektuaren
koordinatzailea.

Ikertzaileak **proiektuaren garapenean lortutako emaitzen eta ikaskuntzen balantzea** egiteaz gain, azken urteetan egindako lanetik sortutako etorkizuneko agendak planteatuko ditu.

IBILBIDE PROFESIONALA

Soziologian lizentziatu zen (UBA/UPV-EHU), eta Zientzia, Teknologia eta Gizartearen Filosofian Europako Doktorea da (UPV-EHU); Javier Castro-Spilak Goi Mailako Hezkuntzako Masterra ere badu (Palermoko Unibertsitatea/UNESCO).

Gaur egun, ikertzaile nagusia da GIZALABen (Gizarte Politiketako Berrikuntza Zentroa) eta Socinnovako (Social Innovation Excubator) CEO. Lanaren barruan, NEXT-CARE (Bizitza Luzetasuneko Berrikuntzaren Mugaz Gaindiko Euro-Poloa) proiektua eta TRANSIS LAB (Living Lab, landa-eremuetako bizitza-luzeraren gizarte berrikuntzako mugaz gaindikoa) proiektua koordinatzen ditu.

Haren ikerketa eta esku-hartze sozialeko ibilbidea honako hauek oinarritzen da: gizarte-berrikuntza, gizarte-politika eta zerbitzu-erakunde berrikuntza, bizi-luzetasuna eta zaintzak, eta gizarte-eragina ebaluatzen zuten diseinua eta garapena.



Mahai-ingurua

Bizitza-luzetasuneko politiken etorkizuna Euro-Eskualdean

Jardunaldiarekin jarraitzeko, mahai-inguru bat egingo da: **“Bizi-luzetasunaren politiken etorkizuna Euro-Eskualdean”**. Bertan, hainbat lurraldetako arduradun instituzionalak, akademikoak eta profesionalak bilduko dira, bizitza-luzerak aurkezten dituen erronkak eta aukerak eztaba-datzeko, belaunaldien arteko ikuspegitik, ikuspegi komunitariotik ta mugaz gaindikotik.

Mahaiaren helburua lurralde bakoitzean bultzatzen ari diren estrategia eta ekintza nagusiak azpimarratzea izango da, erronka komunak nahiz lankidetzarako aukera identifikatuz. Honako hauek bezalako funtsezko gaiak jorratuko dira: zerbitzuen iraunkortasuna, parte-hartze komunitarioa, gizarte- eta osasun-politiken arteko koordinazioa, eta mugaz gaindi erantzun bateratuak eraikitzeko dagoen beharra, zahartze demografikoaren testuinguruan.

Besteak beste, honako hauek hartuko dute parte: **Frédéric Bousquet**, Pirinio Garaietako Departamentuko (Okzitania) Autonomiarako Departamentuko zuzendaria; **Begoña Elizalde**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko irakasle titularra; **Anthony Pagis**, ReSanté-Vous-eko operazioen zuzendaria Pirinio Atlantikoetan; eta **Eusko Jaurlaritzako** ordezkari bat.

MODERATZAILEA

Javier Castro-Spila.
NEXT-CARE proiektuaren
koordinatzailea.

Mahai-ingurua / Hizlariak



Frédéric Bousquet.

Autonomiarako Saileko
Etxeko Zuzendaria.
Goi Pirinioetako Kontseilu
Departamentala.



Begoña Elizalde San Miguel.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko
Soziologia eta Gizarte Laneko Saileko
irakasle titularra.

IBILBIDE PROFESIONALA

Pirinio Garaietako Departamenduko (Okzitania) Autonomiarako Etxeko zuzendaria. Solid'Action65, Koordinaziorako Laguntza Gailuak (KLG) eta Autonomia Saileko Zerbitzu Publikoaren aitzinirudi (SPDA) bezalako ekimenen buru izan da. Gizarte- eta osasun-koordinazioan esperientzia handia du, eta gizarte-inbertsioa herritarren, profesionalen eta erakundeen parte-hartze aktiboarekin uztartzen du. NEXT-CARE bezalako europar proiektuetan parte hartzen du, non mugaz gaindiko lankidetzak bultzatzen duen zahartzearen erronkei aurre egiteko eta landa inguruneetan arreta eskaintzeko.


IBILBIDE PROFESIONALA

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia eta Gizarte Laneko Departamentuko irakaslea eta zuzendariordea. Soziologian lizentziatu zen (NUP), eta Soziologian doktorea (UC3M) da; bertan, irakasle eta ikertzaile moduan lan egin zuen 2009 eta 2018 urte artean. PNUD, AECID eta Europako Batzordea bezalako nazioarteko erakundeetan garatu du ibilbidea. Haren ikerketa zaintza-aren gizarte-antolaketa oinarritzen da, eta arreta berezia eskaintzen die familia-politikei, kontziliazioari, zahartzeari eta etxeko enpleguari; esparru horietan nazioarteko irismeneko proiektuetan parte hartzen du.



Anthony Pagis.

ReSanté-Vous-eko operazio zuzendaria.
Pirinio Atlantikoak.



Eusko Jaurlaritzako ordezkaria.

Baiezatzeko zain.

IBILBIDE PROFESIONALA

Anthony Pagis-ek hamar urte baino gehiagoko esperientzia du medikuntzaren eta gizartearen arloan, eta erakundeak eraginkorrak izan daitezkeela defendatzen du, giza dimentsioa galdu gabe. Zentro mediko-sozialak zuzendu, taldeak lagundu eta proiektu berritzaileak gidatu ditu, batez ere, adineko pertsonen zaintzaren eta etxeko autonomiaren inguruan. ReSanté-Vous-eko Eragiketen Zuzendari gisa, zahartzeari lotutako ahuleziak onartzera bideratutako ekimenak bultzatzen ditu, pertsona bakoitzaren gaitasunei balioa emateko modu berriak aztertuz, profesionala, zaintzailea edo erabiltzailea bada ere.

Elkarrizketa irekia



Jardunaldiari amaiera emateko, elkarri-zketa irekia egingo da, eta parte-hart-zaileek topaketaren edukiei buruzko irit-ziak, galderak eta hausnarketak trukatu ahal izango dituzte. Halaber, begiradak kontrastatu, ekarpenak jaso eta Euro-Es-kualdeko bizitza-luzeraren politiken etor-kizunari buruzko eztabaida kolektiboa aberastu ahal izango da.

NEXT CARE

Informazio gehiago:

www.next-care.eu
project@next-care.eu

Linked 

labur.eus/NextCare_LI
